

SANTIO-BIDEA TA GURE GALAKSIA

Gure galaxia izarbela eta izar askoren moltzoa edo moltzoen moltzoa da. Ez dakigu garbi zenbat izar diran, bai 30 000 milloi. Eta ardatzetik igaroten dan lerroak 50 000 argi-urteko bidea dau eta orren erdia baiño gitxitxua-go lodieran 20 000 argi-urte.

Gaslaxia osoak bere buruari bira emoten dautso eta olako bira bat osotzeko 300 milloi urte bear ditu.

Eta galaxia aundi orren barruan eta milloiak izarren artean izar bat da gure eguzkia bere inguruan izarbelak daroazela.

Izar guzti orreik begi utsez ikusten doguz.

ZODIAKOA: Orain 6000 urte dirala gaur zori txarreko guda dala-ta ain ezagun dogun Bagdad urian, Eufates ibaiaren alboan, Kaldea'n, astrologoak bizi ziran izarretara begira eta amabi izar-moltzo edo konstelaziño izendatu ebezan eta eguzkia ille bakoitxean olako izar-moltzo batetik igaroten dala ikusi eben eta eguzkiaren bide orreri zodiako ipiñi eutsoen izena. Izar-moltzorik geienai, barriz, piztien edo abereen izenak ipiñi eutsezan: Aries, Taururs, Jeminis, Kantzer, Leo, Birgo, Libra, Skorpio, Sajitarium, Kaprikornium, Akuarium eta Piszis.

Astrologo orrein ustea zan izarrak gure bizitzako jazokizunetan zer-ikusia ebela, gure jaiotza aurretik bizitza osoa izarretan idatzita ba'lego lez. Nostradamus izan zan erdiaroan idazki orreik gizarte osorako irakurten onena. Gaur be asko dira oroskopoa jakin-naian aztuekana joaten diranak.

SANTIO-BIDEA: Ortzian ikusten dogun izar-zerrenda bateri Santio-Bidea deritxo, Konpostela'ra joiazanak norantza joan bear eben agertzen ebalako. Esne-bidea edo "Via Lactea" be esaten jako, ortzian jainko-eme bat joan zala esnea eroaten eta bidean jausten jakon esnea zirala izar orreik, diñoalako antxiñako kondaira batek.

Santio-Bidearen arkuak lurbira osoa inguratzen dau, baiña guk beti ikusten dogu alde bat bera ipar-aldean bizi garalako, egoaldean bizi diranak beste alde ikusten dabe, beste izar batzuk, eta ekuador edo lur-garrian bizi diranak urte osoan ikusten dabe dana.

Ipar-aldekoak ikusten doguzan izar-moltzoak oneik dira: Artz-eme nagusia (osa mayor) da ezagunena eta lau izarreko gurdi baten antza dauko eta beste iru izarrek bidea erakusten dabe ipar-izarra aurkitzeko. Au artz-eme txikiaren mandoen musturrean dago dizdiratsu.

Artz-emeagandik urrean daukagu udabarrian Arturo izarra eta ipar-izarren beste aldera Leo izar-moltzoa eta Regulus onen izarrik argiena. Udan Lira da argitsuena,

Zisne izarra ondoan dauala.

Izar ezagunen artean aundiena dan Antares dago Skorpio'n. Or dagoz udazkenean Pegaso eta Andromeda. Neguan gurdilaria dan izar-moltzoa. Or ikusten da Orion eta emendik 300 argi-urtera Pleiadeak eta egoaldean Sirio, izarrik aundiena eta iru eguzki bearko litzakez, neurritz, onen antzeko bat egiteko. Emendik 8 argi-urtera dago.

IZAR-MOLTZOAK (KONSTELAZIÑOAK): Ez dira besterik izar-pillo bat batuta baiño, naizta gure begientzat izar bakarraren antzera agertu.

Batzui pikortsuak esaten jake orban-antzeko zuriak barruan daukezelako, baiña bakoitxa izar-pillo bat dira eta olako izar batetik bestera milla eguzko sartzeko besteko bidea dago. Tukan moltzoak, esaterako, 50 000 izar daukaz barruan eta gure begientzat pelotatxu bi dira. Emendik ara 35 000 argi-urteko bidea dago.

IZAR-LAÑOAK (NEBULOSAK): Odeien antza dauke eta argia dariela dagoz. Andromeda, esaterako, elipse tankerakoa da, oso dizdiratsua.

IZARREN BIZIA: Izarrek, eguzkia bera be bai, gaia dira, materia, eta gai ori erreten dago, orregaitik izar batzuk amatetan doaz.

Ikusten doguzan izan asko antxiña amatauta egon leitekez eta guk bidean datorren argia ikusi millak urteetan.

Batzuk otzituta dagoz eta orreik margo gorri-illuna dauke, erdi otz dagozenezan margo oria edo beillegia artzen dabe eta beroen dagozan izarrek zuri-urdiñak dira.

Orregaitik, izarrek euren argitasuna aldatzen doaz, batzuk bat.batean beste batzuk astiro. Erreten dagoan izarri "noba" deritxo.

IZAR IGESTIAK EDO "FUGAZES" esaten dautsagu gabaz arin alde batetik bestera ikusten doguzanai, jausi egiten dirala dirudi. Baiña orreik ez dira izarrek, meteorok dira. Izaberlen edo planeten zatiak dira. Aizera sartzen diranean berotu eta lurrundu egiten dira. Ez dauke ba, segundu batzutako bizia baiño. Iñoz baten bat lurrera be jausten da.

OLAZAR'tar Martin'ek eratua